

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 15/2017 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, onartzen duena deuseztatzea eta baja ematea Arabako Foru Aldundiaren zerga itunduen autolikidazio eta likidazioetatik datozen zerga zorrei eta zehapenei**

Foru dekretu honen helburua da saihestea zerga bilketako jardunak, ogasun publikoarentzat edo haren helburuak betetzeari begira probetxurik batere ez dakartenean. Halaxe gertatzen da, gertatu ere, zorrak ordainaraziz koste handiagoak sortzen badira ezenez zor horietatik erator daitezkeen balizko baliabideak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Deuseztatzea eta baja ematea Arabako Foru Aldundiaren zerga itunduen autolikidazio eta likidazioetatik datozen zerga zorrei eta zehapenei.

Deuseztatu eta baja emango zaie kontabilitatean artean biltzeko dauden zerga zorrei, hiru euro baino zenbateko txikiagoak badira eta Arabako Foru Aldundiaren zerga itunduei dagozkien likidazio eta autolikidazio artean ordaintzeke daudenei badagozkie. Horretarako, zor horiei kontuetan baja emateko modua ematen duen informatika prozesua egikarituko da.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu honetan xedatutakoa artikulu bakar horretan aipatzen diren zor guztiei aplikatuko zaie, baldin eta, Foru Dekretua indarrean sartutakoan, hark ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

#### AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Gasteiz, 2017ko martxoaren 21a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*

**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**